





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

FITO RODRIGUEZ

gau zurbila

Eguna gauaren itzal zurbila delarik

Beste hizkuntzaz esandako hitz batek,
azentu arrotzez errepikatua, poliki ahoskatua
eta berehala ahaztua,
istorio iluna sortu zuen nigan.

Zenbat aldiz gertatu ohi zait hori?

Neure ohiko doinutik

kanpo aditzerakoan?.

Zuria baino zuriago geratzea

ertz bolkaniko mehatxagarrian?.

Non egon zen istorioa

ni aditu baino lehen?

Ilunpean

edo

inon ez.

Zirrara mutu batek hartu ninduen.

Abiapuntu estu hartan gertatu nintzen

esanahi zuhaitzak ulertu baino lehenago

behar nuen argitasunerako

handik haratago joan nahian.

Pausatu nintzen gardentasun ezan

hitz jarioak egindako bidean

batek daki nola...

eta soinu horiek zeramatzatena,
orri bihurtzeari ekin nion,
baina handik aurrera bidea azkartu zen
ziurtatu nahian esaldiaren atzealdekoa
eta itzultzeko sakabanatuegi zegoena,
ezkutuegia ulertutako bihurtuz.
Idatzita zegoenak huts egin zuen
beste behin.

Argia ez zegoen nire aurrean,
baizik eta askoz urrunagotik zetorrela,
zerumugako lerro batetik,
niri eta niretzat zekarrena
beste batek zabaldua zirudien.
Ez al gara geure buruaren itzala?
Bai eta ez,
Baietz.

Aldi berean, ikustatzen nuena
nekusan soilik,
moteltzen ari zen higidura,
azelerazio bortitza nola ezabatzen zen
harritzen ninduen.
Korrontetik bananduta
zeharkatu nuen esanahia,
Soinutik soinera.

Mugitzen, garrasika edo, besterik gabe,

hitz egiten saiatu nintzen,
men egin nion azal mehea itzultzeari,
horretan pentsatu gabe,
baina harrapatuta eta so geldirik geratu nintzen,
higiduraren irudikapenean eta ezpainak gorabehera,
nire existentziarik eza ukitu nuen,
espazio irekian agertzeko ezintasunean.

Nire soina kanpo zegoen handik,
hedaduratik eta soinutik,
aldi berean gorputz horren absentziatik,
hedaduratik eta soinutik kanpo egonik.

Lotuta nengoen,
baina nahimenak oraindik bultza egiten ninduen
nia askatzeko...
idatzi behar nuen lerro bakar bat hori
bideratu nahian

Eta horrela, eszenak atzera egin ziren,
gela zaharretik igaro,
eta ustekabeko itzulera horren esanahia
ikaraz bete zen
"inperfektua"... "keinua"... edo,
hobeto esanda,
zalantza ulertzen ez nekielako.
Horrela etorri zen ostantza
idaztearen atsegina emateko.

Izan ere, ur beltzeko hari batetik
bereizten zen,
uretan murgiltzen zen
zanga beltz batetik,
barruan beste guztia lo zegoen bitartean,
eta ez zen haren arnasarik sumatzen,
ezin ginen elkarri entzun,
ez ginen konturatu hurbiletik
beraiek zirela gertu
gertukoak ez izan arren.

Ez nuen entzun behar, ezin nuen aditu...
Halere, idazkia zen, ez zegoen zalantzarik.
Gainazalean berregin zen,
antzinako gau lasaiko hormak maileguan hartuz,
eta neure isiltasuna sentitu nuen
erdian erortzen,
organo mugatuaren
taupadak nola.

Handik dena sor zitekeen,
han egon zen hasieratik,
bere boterea oraindik
erabili ez den tokian,
bere asaldura lokartua
eta kamustua dagoen lekuan...
Esekita, nahastuta, zirkulu grisak nola zebilen,

nahiz eta haien txistuak ez nituen inoiz entzun.

Ezin dugu esan isilduak dauden ala ez,

benetan dena erabakitzeke dagoenean.

ILUNABARRA

Hitzen eta gauzen arteko lotura bereganatzetik,
handik bertatik, etorri ziren poesia eta jakintza,
eta haien behartsu bihurtu nintzen: poeta.

Poesia hitzak, gauzak, ekintzak,
tokiak eta behartsuak askatzeko aldarria baita.

Poetak zakarrontzira botatzen duelako filologia,
hizkuntza despoten kontra borrokatzen duen heinean
eta hizkerak behartuen askapena bilatzen duen neurrian,
idazleak Herioari aurre egiten dio.

Ezin dugu esan haien artean gauden edo haietako bat garen,
zeren espazio horretara joan izanak ez baitu beste inor kontuan hartzen.

Halere, itxaron egin nuen,
eta ikuskizuna nire itxaronaldiaren zati astunagoa iragarri zen,
gertatuko zena ezkutatzeko ganga bat osatuz...

Lurrean, arreta-gunea ebaki gorri ilun bihurtu zen:
Iluntasuna, kobazuloa, bagina, matrizea,
eztarri irekia eta argitua,
zurruntasun lehor ureztaezin batek berririo zauritua.

Ilunabarrak harrapatu ninduen.
Eta hitzak hori esan zuen orduan,
eta nire ahotsa zen,
koloreztatutako ikusmenetik edo,
hobeto esanda,

koloreen atzealde sutsutik sortua,
nire ahotsa,
konjuru arin,
presazkoa modulatzeko entzun nuen,
non bokalak bata besteari atzetik zetozen,
elkar trukatu eta testuari nire arnasaren bidez
aplikatu zitzaizkiola iruditu zitzaidan.

Bere sekuentziak xehetasun bakoitzaren arabera jarduten zuen,
aurkako elementuak alboratu uxatzen zituen,
kate erritmiko bat osatzen zuen,
espektro bat, rolak eta gertaerak biltzen eta banatzen zituen,
eta jolas haiek irudi gisa erabili nituen,
ene barne harrabotsa,
beste batzuen artean,
goratu ahal izateko,
alez-alez jaurtitzeko...

Askatutako inskripzioan txertatutako letren ahots-erliebea,
haiek gabe egonkor, opako, dezifraezin egongo nintzatekeen;
letra-atomo horien jardura,
ni xede nintzen eragiketa alderantzizkatuz esku hartzeko aukera eman zidatenak,
zeinen jaulkipenak eta proiektzioak botere diskretua hegaz itzuli baitzidaten,
horrek guztiak distantzia ireki zuen,
kanpoan,
eta soinuak ikusten nituen berriro ere zeru morea nire begien sakoneraino sartuz.
Formula zaharrari etengabe darion datu berriak bustitako hitza izanik.
Etengabe dabilena, hutsik egingo ez duena.

Ahotsa garatuz,
gogoetarako balio duen hizkuntza paperatuz.

Ezkerreko hotsa.

Bihotza.

Ahotsa.

Barne ostotsa.

Ezetzaren harrobia.

Ezkerreko ahotsaren habia.

Nire hitza ereiteko aiherra.

Hizkuntza merkearekiko erra.

Baina ahotsaren eta idazketaren arteko ebaketa
nonahi existitzen denez,
etengabeko atzerakada horrek,
ekinean beti dagoena,
lerroak sakabanatu eta hondoratu egiten ditu
eta ikusten diren gainazal mortura itzultzen gaitu,
inperfektuak mugimendua
eta hondo bikoitz iheskorra emanaz,
adierazpideak hil arteraino,
bizitzara itzultzen galaraziraino,
munduko errealitatean
inorentzat ez den pentsamenduan.

Hasieran, zutabe garden bat,
non gertatzen dena altuera handiagoan edo txikiagoan zintzilik geratzen baiten,

eta esnatzen zarenean esaten diozun zeure buruari:

"Aizu, ni han egon nintzen",

baina ezerk ez du esaldi hori azaltzen,

berak zurbil begiratzen zaituelako...

Ahots absente horrek ez dizu distantziarik ikusten uzten,

lo zaudenean zelatatzen zaitu, zu eta zure artean irristatzen da...

Gero eta susmo gutxiago daukat,

gero eta gutxiago gogoratzen dut

nondik nabilen ezer ikusi gabe

ibiltzen banaiz ere...

Hau ez da guretzat, hitza behar dugunontzat.

Behartsuak ez du ezer, bere hizkera besterik.

Esklaboak ez dauka deus, haren hizkuntza soilik,

Proletarioak prolerik baino ez duen neurri bertsuan.

Halere, gaua hirien gainean jira eta bira dabil,

beti bezala,

non orain makina mutuek irakurtzen,

deszifratzen, kontatzen, idazten

eta gogoratzen dakiten,

eta elkarrizketa etenari ez diogun antzematen,

keinuak tokitan daude,

hemen, agian, maindireen artean,

mihizatutako objektu eta soin ataletan,

"zerbait esan gabe dago"

esanez.

Orain hitz egiten dute,
baina zerbait agertzen da haien isiltasunetik,
haien oihartzunak laino batek irudikatzen ditu,
erreflexu batek, "baina ez, guztiz kontrakoa da",
"benetan uste dut hori baieztatzeko"
nik benetan idazten baitut gertatzen denaz,
eta noski ezinezkoa da han osotasun hori bere hartan,
alde batera azaltzea, etendunik,
baina, azkenean, elkarrekin gaude,
ez dago itxaroteko edo gelditzeko arrazoirik,
zaila da tarterik onartzea,
osorik dagoen zuri horretan;
baina oso zaila da ezer baieztatzea
ahantzurako kondenatua bizitzea,
zeinak eskuak itzultzen eta indartzen baitu,
testuak eteten duenean, atzera egiten duenean,
ahotsak itzultzen uzten dituenean
grabazio amaigabe bezala.

Beharrezkoa da elkarri ez entzutea,
"zertaz ari naizen", "zehaztu",
dena usteldu eta metatu,
garbitu, erre, deuseztatu,
amaigabeko elementutik baitator.
Beste batzuek, berriz,

beren hitzak bilatzen dituztenean,
ez ulertzeko, idazteko baizik,

gaur hemen esaten dena estaliko dute.

Hartan, idazlea legelaria da,
baina ez mundu honetakoa,
ez baitu edertasuna sortzen,
haren bila joateko ibilbideak
markatzen dituela baizik.
Berritzailea behar du izan idazkera
ilunbistatik egunsentirako bidean.

Harrigarriena, beraz, bide aztoratu hau izan zen...
Orain neraman jarioak, egia esanda,
denbora trukaketa batetik zetorren,
bera niaren gainean jarriko balitz bezala:
zerbait hasia zen,
baina hasiera hark
hastapeneko geruza
sakonago bat erakutsi zuen.
Ez zegoen ez lehenago ez geroago,
ezinezkoa zen buelta ematea...
lerro bat bera ere,
neu nintzen,
esan ziezadakeena,
hau edo hura axolagabeki esan zezakeena:
orduan, dena irauli egin zela zirudien,
hedatu egin zela;
artean markatua baina bereizia zegoen,
irudikatua, salatua...

Gauaren ertzean etzanda aurkitu nuen neure burua.
Egiatan hitz egin zidan indarrak
"gauean galdua" zioen,
eta esaldi horrek,
esaera zahar irudi heze
eta azkar aienatu horrek,
testuarekin batera izendatu ninduen,
nitaz hitz egin gabe,
"gauaz" baizik,
denboren arteko igarotze etengabe eta urdin hori besterik ez baitzen,
orainaldia eta inperfektua konturatu gabe elkarrekin komunikatzeko biraketa.

Eta "oihartzuna" edo, hobeto esanda,
ebakia edo batasun honi lotutako ondorioa zegoen:
"egina dago".

Odola ez baita berehala sortzen,
lehenik zalantza bat badago,
atzerapentxoak, non haragia bere sakonetik bultzatzen duen,
distira zurbil eta konprimitu bat kolpeari erantzuteko.
Orduan, zorrotada gorri batek uzten du
berekala
edonor armarik gabe, urrun, ahul:
zipriztinek eta oihuek, espasmoek eta garrasiek...
konbultsioek, izerdiek larruazala eta orroek estaliko balituzte bezala.

Ikusi nuen adierazlearen burua moztuta
baina oraindik bizirik,

ahoa zabalik ahoskatu eta harrapatu ezin zen hitz bakarrean,
burua islatuta, erauzita, burua betiko mutu eta lurtar,
eta horrek adierazten zuen torturak nigandik harantzago jarraitzen zuela,
hemen, txoko korapilatsu honetan, behean...

Sekuentzia hau gogoratzean,
ulertu nuen esanahi bakarra aurreratzen ari zela,
desbideratze honen bidez itzultzen ari ginela...
Akordutik hona, azkenean, eta haren sakontasuna emanez,
keinu hori bere kabuz ari zen,
eta jauzi horrek aldi berean
ezabatzen zituen inskribatuta zegoen haragia eta hondoa,
marraztuta eta margotuta zegoen gorputza,
baina baita paisaia eta horma ere...
Han zegoen sarrera, han zegoen lehen aldaketa segurua...
Tortura hori aipatzeko eta identifikatzeko,
hain ondo ezkutatuta dagoela inon,
hau da, non ez dagoen ez alturik ez baxurik,
ez gaztelurik ez ifrentzurik:
ikusten nuen norabidea esanguratsua,
nire ustez forma jarraitua eta egonkorra zer den ikusten den lekurantza, non
beharrezkoa zen finkatzea, desartikulatuak, biribilduak, hautsiak, moztuak....

Horrela, zatiak eta haragia agertzen direnean,
galdutako hitza sortzen da,
baina begiztan, dei hori berehala ahazten da...
Norbaitek aurkituko du eta, halere, ez da ezer mugituko:
gertaera koadroan gertatuko balitz bezala irudikatuko da,

esandakoaren hilotza irudikatu daitekeen buru moztua bihurturik:
gorria ilunabarreko zeruan.

Argi dagoena ura da, hura besterik ez.
Amuak harrapatu ohi du arraina, hitzak gizakia.
Horregatik da poesia, berez, hutsala,
hitzen noraezeko uretan igeri egitea baita.
Idazkera poetikoak ez ditu hitzen esanahiak argitzen
hitzen eginbeharrak baizik.

Hala eta guztiz ere, neure istorioaren ondora iritsi nintzen.
Hori adierazi zidan "gu guztiok" zeharkatuko zukeen
zirkulu baten kanpoaldean kokatzeko ahaleginak.
Uste nuen eratzen gintuen ehunera iristean,
jakingo nuela zerk mantentzen, elikatzen, animatzen zidan,
baina erantzun zuzenaren unean
desagertu egin zen zerbait,
behin "uretara" deitu ziotelarik
joan behar izan nuen,
oihuka ari nintzen bitartean...

Erantzun hori hitz bakar baten ahoskerarekin lotuta zegoen,

eta hitz horrek modu trinko eta anitzez izendatuko ninduen,
beste hizkuntza ezagun batean ez dagoen diptongoa medio,
eztarria erretzen zidan izen azido batek.

Orduan ia zilindro baten tontorrean nengoelarik,
zeinaren hedadura ezin baitzen jakiterik,

zeinaren oinarria

metal astunenetan sustraitua baitzegoen,

ikusi nuen.

Honenbestez, milaka ahalegin egin nituen gora,

nire gainetik apurka-apurka urruntzen ari zen irekidura zurirantz,

lerro bihurri eta altu bat bata bestearen atzetik jarraituz,

hormaren kontra estutzen ninduen.

Bidaia amaigabea zirudien eta, halere,

harantzago gindoazen nolabait,

zeruan proiektaturik, zeinaren distira itzali,

gorde eta urruna ikus nezakeen.

Arragoa, fabrika, non

horrela garatu baikenuen

bata bestearekiko,

bidea.

Baina berriro ilunera

eraman ninduen

zirkulu zuritik kanpo

aldez aurretik inskribatutako formula baten

berreskurapena eta garapena

izan zen.

GAUA

Bidea, edo, agian, aitzitik,
beste bidaia baterako sarrera,
berbera baina kontrako norabidean,
berbera baina islatua, edo,
hobeto esanda,
egin berri nuenaren errepikapena
eta nindoan bidea ispilu bihurturik,
oraindik ere astiro,
inoiz isla deitu izan zitzaionetik harago
segitu nuen.

Erretina, ordea, ilundu berria zen,
suzko bizkarralde bat zuen oihal baten pisuaren azpian.
Oinazeak, minaren ilusioek,
erabateko eta behin betiko oinazearen posibilitateek
eragin zidaten luzaro atzera egitea.
Une batez etorkizun mugagabe bati eutsi ahal izan banio bezala,
gela, jendetza, orain dagoen zerua,
oraindik kuxkuxean ibiltzeko neukan iragan batetik baletoz bezala...
Lurrean etzanda, ez nekien zergatik erabaki nuen horrela lo egitea lorik egin gabe.

Nire ondoan, itzalez marraztutako
paper-orri batek argia islatzen zuen,
azken esaldien irudiak agertuz,
"baina ebaketa hau existitzen denez,

ekinean dagoen erretiro hau,
lerroak ur-azal hilen gainean agertu aurretik
sakabanatu eta hondoratzen dira ",
gauean kasualitatez bildutako arrasto edo orban sail bat bezain ulertezina dateke.
Izan ere, gauean, idaztean eta bizitzan itxaropenaz harago egotea hobe da.
Nabaria baita hizlariak ez duela hiztuna elikatzen,
poesiak hitz hutsa betetzen du hiztuna asetzeaz.
Poesia hitz asmatua baita, hitzarekin asmatzea.
Gauaren horma ilun bezain hitsa argitzea
eta pitzatzea izaten baita poesiaren hitza.

Jakina, nire mintzatzeko doinua ezagutzen nuen,
besteen letrak nik nahi nuen ordenan marrazteko modua.
Jakina, hitzen esanahia, sekuentzia,
asmo adierazi eta sekretua irakurri ahal izan nituen.
Baina marrazki horretatik ez zen ezer sortu,
nire begietatik haratago benetan gertatzen ari zenarekin
ez zuen zerikusirik.
Ez nengoen jadanik hitzen aurrean,
haien atzean, ni haien ondoan,
haiek, esanahiak, beraien aurrean:
sakonera berberaz zeharkaturik,
gai berean bildurik, esekirik, zabalik,
bi ote ginen jakin gabe...

Eta horrela letra bihurtu nintzen
beste letra batzuen artean,
eta sentitu nuen ibiltzen

edo hitz egiten banuen,
maila-diferentzia horren arabera bakarrik
ikusten nuela neure burua,
ikusi gabe gertatzen zena...

Baina buelta eman nion,
bila hasi nintzen,
ez nuen ezer aurkitu,
arrastorik ere ez,
ezer aldatu ez bazen ere,
ilunpetan jarraitzen zuen denak...
Oztopoaren aurrean zutik,
begiak zabalik, ezertan pentsatu gabe...
Edo, hobeto esanda, gertatzen ari zena transmititzeko ezintasuna,
gertatzen ari zen desagerpena besterik ez zegoen...

Zerbait gertatuko zen nik neuk ere
adierazi beharko nukeena:
nire itxaronaldiak, gero eta geldoago,
uholde honen sorrera harrapatu zuen,
bere ondorengoa, plan gardenak,
bere berrantolaketak nire degradazioa erabakiz,
nire higadura ordena hertsian,
nire kanporatzea,
nire galera,
nire patua...
Baina inor ez zen ni,

gertatuko zena, izan ere, ez zen beste edozeinentzat gertatzen ari,
kanpotik dena ezeztatzen zuten itzalen saila besterik izango ez balitz bezala.

Poesia izan zen nire itsasargia bere gidaria hitza baita, hitz hutsa.
Eta iraganekoei eta beste lekuetakoei ezin diegunez ia ezer jakinarazi
horretarako eragiketa aldi berean egiten da
mugitzen garen lurrean
eta gauaren sakoneran,
zeinak ez ligukeen ikusten utziko begirada altxatuz gero,
hitz jarioaren eraikuntza honela aurkezten delarik:
bizitza-sekuentziak, artikulazioak, tarteak,
norberaren ikuspuntu bakarretik adieraziak,
norberaren hitz hatsez osatzen baita poesia.

Beraz, hasieran "jauzia" deitu behar diodana zegoen,
jauzi eginez bakarrik pasa daitekeen ebakia,
eta horrek eragiten du, hain zuzen ere,
ikusmena, iratzartzen duena, objektuen atzea ikustea baliatzen duena,
soinuak, buruak ezerezetik honaino eramandako bere bikoitza zeharkatzen duenean
nerbio guztien tirakada batez,
alanbre txikiena baino mehetasun murriztua,
eztanda eta haustura,
non gorputza jaurtigai bat bezala botatzen baitu hedadurarik ezak...

Esnatua nintzen, behingoz,
baina esnatze hura efektu desplazatu bat besterik ez zen izan,
ernamuin bat, teleskopio baten irudi iheskorari lotutako dislokazio bat,
zeinak nire ardatza deitzeko eskubidea baitzuen,

non jariora, esanahien zuhaitza, argitasuna, esaeren sustraia,
zeinaren begiradapean pixkanaka bihurtu nintzen jario hutsa.
Hortik aurrera, berriro aurkitu nuen erdigune bat,
periferia bat, azken batean,
egunak hartuko zuen jazarpena antolatzen zen bitartean
gogoratzeko aukera,
etorkizunetik zetorrela zirudien aireko bilaketa,
lineako kolore batengatik,
lerroak kurbatzen zituen koloreengatik...
Honela zen: zarata, etengabeko mugimendua, "munduaren zurrumurrua".

Baina ez nuen hori aditu,
eta gainera ezin dugu esan zurrumurru bakar bat dagoenik,
ezin dugu esan "mundu" bat dagoenik jarraikortasun eutsiezin batera iritsita,
halako desordena lehor batera, distiraz egina,
eta mundu honen bihotzean, lo eta lo nagoen gelan,
nire atzean sartuak ziren keinu bortitz eta geldo guztiak,
kolpeak, hitz atxikiak, errepikatuak, intziriak, bihurriak,
gaua nire eztarritik aterako balitz bezala,
ahoa iluntasun hori mantenduz, ezpainak zurbil,
mihia tarteka oinaze eztanda batean agertuz,
sexua hezea, masaila laztanduz,
luzaro mantenduz horrela,
beste gorputz batetik etortzeko zegoen esperantzan bezala,
une batez nire gorputza ez zenera itzultzen,
harantzago nindoala gogaitzen eta eragozten zidanera,
irmoago joateko adieraztera.
Hitz hutsez hizkuntzaren hutsak osatu ohi baititu poetak.

EGUNSENTIA

Eta hura isilaraztean,
idazkera poetikoaren ahotsa estaltzea edo,
hobeto esan, dardararen barruan forma ematen zion ahotsaren zainak,
ikara bakoitzarekin menderatu nuen desintegrazioa estaltzea ezinezko bihurtu zen
nola,
horrela jakin nuen zerbait hasia zela eta ni ez nintzela geldituko...
Hiriaren xehetasun ahaztuekin altxatuz eta haziz,
zikinenarekin, baztertuenarekin, behartsuenekin konplizitatean:
hondakinak, gorotzak, gorakoak, hondakin-urak, pobrezia...
Ezaugarri hunkigarri baten iragarpena izan zen,
luzaroegi zapaldutako erredura batena,
bularrak, nerbioak, orbanak hondatzen zizkion zauri batena...
Hura jotzeko jaio nintzen,
haren atzetik arrastaka joateko denboraren plano zeiharrean,
haren ihesaldi motela nire aurreko horman inprimatzeko,
nire odolaren taupadak emateko,
une horretan nik neuk bihotza eskuan hartu
eta denboraren konpasera botako banu bezala...

Egunsenti lehorrean sartu nintzen,
organoen ertz harrotuan gelditu ahalegin handirik egin gabe,
bere bidaia mekanikoan harrapatuta geratu eta berriro hasi baino lehen...
kanporantz, bere gailuen aurrean isurtzen den korrontetik ahalik eta hurbilen,
non zelulak puztu, banandu eta isil-isilik lehertzen diren bere pantaila zurietan.

Baina ikusi nahi dudanak ni ikusi gabe hiltzen nau.

Hemen, hiltegiaren erdian jokatu behar nuen nire papera,
zeinaren urrezko perspektiba zabaldu berria baitzen niretzat zerupean,
zeinaren errealitateak hiria eta zerua urratu berri baitzituen,
paper hori, azken batean, sinplea zen:
pertsona bakoitzaren deskonposizioa baieztatzea,
haren galeraz gozamen ukatua amaieraren erlaitzean...
aldi berean adierazi behar nuen batasun batean nengoela beste batzuen artean,
baina batasun kuantifikatuezin batean,
bere amaierak berak etengabe kitzikatua...
nire heriotzaren, egilearen heriotzaren eta adierazlearen heriotzaren ondoren,
izatez, sakonean puzten hasia zen adierazpenaren egunsentiraino iristeko aukera.

Bizitza eta hitza oxinak baitira, sasiak, pozoitsuak,
elikagai edo osagai bihurtu daitezkeen landareak.
Hitza bera zuria baita, hazi fosildua eta poesiaren oinarri hutsa.